



## Ikastolako e-posta ikasle guztientzat

Orain arte, LH5. mailatik abiatuta ikastolako ikasleek @zurriolaikastola.eus domeinuko kontua izan dute alderdi pedagogikoa garatzeko tresna bezala. Konfinamendu garaian gainerako mailetako ikasleekin/familiekin komunikatzeko bide bateratua edukitzearen beharra agerian geratu da eta, ondorioz, **HH2 eta LH3. maila bitarteko ikasleei** ere Ikastolako e-posta kontua sortzea erabaki dugu. Noski, kontu hauek familiekin kudeatuko dituzte, eta jardun pedagogikoarekin zerikusia duen kontuetarako soilik erabiliko dira (meet bilerak, jarduerak helaraztea...). Bestelako komunikaziorako (Ataria, zirkularrak, oharrak...) familia bakoitzak alde aurretik emanda zuen posta pertsonala erabiltzen jarraituko dugu orain arte bezala. **Beraz, datozen egunetan gurasoen posta pertsonaletan jasoko dituzue zuen seme-alaben helbide eta pasahitz berriak.**



## Gelako guraso ordezkarien taldea

Guraso ordezkarien papera indartzea da Zuzendaritzaren eta Artezkaritza Kontseiluaren helburuetako bat aurten. Hori dela eta, figura honen helburuak, funtzioak eta osatzen duten taldearen lan-dinamika eraginkorrena diseinatzeko asmoz, bilera bat antolatuko dugu urriaren bigarren hamabostaldirako, HHtik Batxilegora bitarteko ikasle-talde bakoitzeko guraso ordezkariekin. Hemen duzue egitasmo honi buruzko [informazioa](#).



## Janari-bilketa Lesbos-ko errefuxiatuei laguntzeko

Zaporeak proiektuak janari-bilketa erraldoia egingo du Euskal Herri osoan Lesbosko errefuxiatuek bizi duten egoera larriari erantzuna emateko, eta Zurriola Ikastolak ere ekimen horrekin bat egin nahi du. Hortaz, asteburu honetan Bretxan egingo den janari-bilketan parte hartzeko gonbitea luzatu nahi dizuegu. Zuetakoren batek bertaratzerik izango ez balu, astelehen goizean ikasleek ikastolan bertan egin ahal izango dute beren ekarpena. Hemen duzue ekimenari buruzko [informazioa](#).




## Batxilergo artistikoan ere saridunak!

Iazko ikasturtean gure ikasle izan zen Aiala Ostolaza hondarribiarrak Creanavarra goi-mailako diseinu-eskolak banatzen duen beka-saria irabazi du. Arte Batxilergoa Zurriola Ikastolan egin zuen Aialak, eta bere ondorengo ibilbidea diseinuaren munduan ari da egiten. Zorionak Aiala!



## Arteko ikasleak Kursaal

Urtero bezala, aurten ere hasi gara Arteko ikasleak Donostiako erakusketak bisitatzen. Oraingo honetan Juan Luis Goenagak azken 50 urteetan egindako margolanak ikusi ditugu. Donostiako Kubo-Kutxa aretoan izango da ikusgai erakusketa asteartetik igandera, 12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.




## GKAIkoekin uretan ere salbu!

GKAI heziketa-zikloko 2. mailako ikasleak ur salbamenduko praktikak egiten aritu dira Santa Klara uhartean. Bertan, atoiak, erreskateak, murgilketak jarri dituzte praktikan, eta igeriketa-teknika hobetzeko aukera ere izan dute.



## Kilometroak

Aurtengo egoera berezia dela eta, hurrengo asteburuan Zubimusu Ikastolak ezingo du Kilometroak jaia ospatu. Hori dela eta, elkartasun-deia egin nahi dugu, eta Amasa-Villabona eta Zizurkilgo Ikastolari laguntza ematera animatu nahi zaituztegu. Beren webgunean duten [Online Denda](#) aukera ona da laguntza emateko, egoera berezi honetan stock handia baitute oraindik salgai. Online dendaz gain, beste hainbat ekimen ere badituzte martxan, eta Kilometroaren [webgunea](#) duzue horien berri.



## OHARRAK / AGENDA:

- **Guraso bilera orokorrak:** Informazio berritua. [Txosten berriak](#) eskuragai.
- **Baimenak:** [Orokorrak](#). Bigarren jolas-orduan ateratzeko [baimena](#) (DBH3-4, BATX1-2).
- **LH4:** Matematikaren liburuaren inguruko [oharra](#).
- **HABE C1:** Diru-laguntza eskatzeko deialdia, gainditu zutenentzat. [Zirkularra](#).
- **Euskara klaseak gurasoentzat:** [Informazioa eta izen-ematea](#).
- **Parketarrak:** [Zirkularra](#). [Kartela](#).
- **Zeu irakurle, gu kontalari (LH1-2):** [Informazioa](#).

